

Ezpalak

JON TORNER

Jon Paredes Marot *Txiki*

buruzko liburu eta dokumental bat aurkeztu ditu Haizea eta Sustraiak elkarteak. *Txiki* irudi bezala hartu arren, estatu frankistaren biktimen omenez egin dutela esan dute elkarteko kideek. Dokumentalak 85 minutuko iraupena du eta *Txiki*ren senide, lagun eta abokatuen hitzak bildu ditu Iñaki Agirre egileak. Liburuak, berriz, 1978. urtean Xabier Sanchez Erauskinek idatzitako *Txiki Otaegi* liburua du oinarri.

Lanetik Egina elkarteak Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako talde gazteen abestiez osatutako hirugarren diskoa kaleratu du, IK3 izenburupean. Hendaiako elkarteak antolatutako lehiaketan 45 taldek parte hartu zuten, eta horietako hamarren kantak bildu dituzte diskoan.

Iñaki Riviere artista arrasatearraren margolanaz osatutako erakusketa izango da ikusgai azaroaren 4a arte Zarauzko Torre Luzean.



Aurelio Artetaren *Al mercado* eta *Sardinera sentada* margolanak erosi ditu Bilboko Arte Eder Museoa, 227.182 eta 180.303 euroren truke, hurrenez hurren. Bi obrek Barakaldoko Munoa jauregiko jantokia dekoratzen zuten, eta Bilboko Michel Mejuto galeriak jarri zituen salgai. Bestalde, Guggenheim museoak Jorge Oteizak 1958an egindako *Leonardoren omenez* eskultura erosi du. 2005etik hona Oteizaren beste lau obra eskuratu ditu museoak.

Joanes Leizarragaren Bibliaren *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria* edizio faksimilea argitaratu du Nafarroako Kutxak. Testamentu Berriaren euskarazko itzulpena 1571n argitaratu zen aurrenekoz, Frantzia. Aurki, Nafarroako Kutxak lanaren edizio komertziala kaleratuko du, dendetan salgai jartzeko.

Zubiaz bestaldera

Urrian hainbat kultur ekitaldi izango da Bilboko San Francisco auzoan. Mesedeetako Zubiaz bestaldera dauden kaleen eta gainerako auzoen arteko komunikazioa sustatzea du xede Bilboko Udalak prestatutako egitarauak. Hain justu, *Zubiaz bestaldera* izeneko argazki erakusketa izan-



go da ekimenaren ardatza. Txema Franco, Ignacio Saez, Felipe Uribarri eta Jaime Gartzia artista bilbotarren obrak izango dira ikusgai Erreproduktzioen Museoan, urriaren 21a arte. Hitzaldiek, bisitaldi gidatuek, kros lasterketak, mural pintaketak eta doako kontzertuek osatuko dute egitaraua. Lehenengo kontzertua The Sunday Drivers (argazkian) eta Smile taldeek eskainiko dute urriaren 13an Bilborock aretoan. Bigarrena The Matt Harding Project taldeek, urriaren 20an. Gainera, Erreproduktzioen Museoan DJak arituko dira eta Mariaren bihotza plazan musika brasildar eta afrikarraz gozatzeko aukera izango da.

Xalbador Eguna urriaren 14an

'XALBADOR ETA DIASPORA' gaia izango da Urepelen ospatuko den Xalbador Egunaren ardatz. Goizean diasporari buruzko bideo emanaldia eta Xabier Euzkitzek aurkeztutako mahai-ingurua izango dira. 13:00etan aperitifia egingo da herriko plazan, Baigorriko Arrola taldeko dantzarien eta trikitilarien konpainian. Ondoren bazkaria egingo da, Xendarineko ahizpek eta Aire ahizpek alaiturik. 15:30ean Patxin eta Patxin pailazoaren emanaldia eta bertso saioa izango dira. Johny Kurutxet (San Francisco, AEB), Jesus Goni (Reno, AEB), Andoni Egaña, Txomin Garmendia eta Sustai Colina arituko dira kantuan.

Fito Rodriguezek *El Diario Vasco*: «Garai batean, batzuek esaten zuten bertsolaritza ezin zela eskolan ikasi, bertso eskole-tatik ez zela bertsolaririk aterako. Baina frogatu da ikas daitekeela, eta antzekoa gertatzen da idazketarekin: ikasi egin daiteke».

Ainhoa Ansak *Galtzaundi* aldizkarian: «Kantuak esparru batzuk galdu ditu. Esaterako, jada ez dugu afaloste bat kantuz bukatzen (ez behintzat lehen bezalako jardunarekin). Hala ere, azken urteetan, kaleetako esparru hori eta gainerako leku publikoak berreskuratu nahian, hainbat ekimen ari da sortzen gure herrietan kantuan aritzeko (...) Hasierako txapelketa haietan jendea kalean eus-kara entzuteko gosez zegoen».

Joxe Rojasek *Gaztelumendi.org* web gunean: «Kopuruei begirata badirudi euskarazko blog komunitatea badagoela, mugimendua badagoela alor horretan, eta beste batzuetan ez bezala, oraingoan trena garaiz hartu dugula euskaldunok. Baina ez dakit dagoena komunitatea edo koadrilatxo den. Esan nahi dut: azkenean beti ikusten ditut izen berberak gauza hauekin lotutako kontuetan, eta izen berriren bat agertzen den momentuan, betiko beste izen horiek aztoratu egiten dira/gara, koadrilan egon eta ezezagunen bat sua eskatzen datorrenean bezala. Badi-notsut: nik denbora pixka bat utziko nuke pasatzen, eta kanpotik ikusten gaituen baten bati galdetuko nioke hori».



Glamourraren orraze estua

Film bat, **A Thousand Years of Good Prayers** eta zuzendari bat, Wayne Wang, Zinemaldiaren historian bere lekua aurkitu duten izen berriak dira. Hemendik aurrera Bahman Ghobadi, Bohdan Sláma, Dito Tsintsadze, François Dupeyron edo Alejandro Agresti —azken hamar urteetan sari bera jaso duten izen batzuk aipatzearen— bezalako zuzendari “famatuen” ondoan urrezko letrekin azalduko da Wangena ere. Gure aldetik, bejondeiola.

Baina telebistan Zinemaldiaren momentu gogoangarrienak laburtzen dituztela ikusi eta sorpresa: Wang azaldu da hor nonbait bai, baita desagertu ere, agudo. Richard Gere, Demi Moore, Lou Reed —ez nekien zinema munduarekin zerikusia zuenik— eta koadrilakoek jan dute errebasoaren tarta zati handiena. Glamourraz hizketan esataria eta pantailan ile urdindun gizona beisbol kapela buruan, txandala jantzita. Eta “hori gla-



mourra bada...” pentsatu duzu, baina badaezpada ez duzu idatzi burutik pasa berri zaizuna.

Zinemaldi honek —aurrekoek ere bai, gutxi-asko— zera erakutsi du beste behin ere: prentsak, zinemaren industriak eta ondorioz publikoak bi orraze erabiltzen dituela zazpigarren arteko lanak baloratzerakoan. Orraze zabalak kalitatea izango luke irizpide, horrek izan ditzakeen kontraesan guztiekin. Hor lekua dute hasieran aipatu zuzendariak, inork ez du haien kalitatea ezbaian jarriko.

Baina, amigo, glamourraren orraze estua ateratzean Hollywood eta bere WASP eredua —ados, Gere budista ei denez, WASB ere onartuko dugu— nagusitzen dira. Zinemaldiaren maila, azkenean, filmengatik baino etorri diren izarrengatik neurtu dela, neurtzen dela, alegia. Norbaitek pentsatu beharko luke epe luzera zer ondorio dituen horrek.

GORKA BEREZIARTUA



Hegoak ebaki banizkio...

... neria izango zen. Ez zuen alde egingo.

Horregatik, gorputzeko edozein atal mugitzeko eta hitz egiteko gaitasuna kendu nizkion; ezkerreko begiko betazala zuen inguruarekin harremanetan jartzeko bide bakarra. Baina **Le scaphandre et le papillon** pelikula-lako protagonistak, eskafandran harrapatuta egonagatik, etsi beharrean tximeleta izaten jarraitzea erabaki zuen. Eta alde egitea lortu gainera: irudimenarekin, oroitzapenekin, bizitzeko indarra hiltzen uztekoa baino handiagoa zelako. Eta sormenez, pasioz, maitasunez, poesiaz eta sentimenduz betetako bizitza izan zuen, kaiolaren mugak gaindituz. Hori dena hain bikain kontatzeagatik jaso du Europako pelikularik onenaren saria Julian Schnabelen filmak. Eta ez gaitu harritu.

Oro har, atseginez ikusi ditugu aurtengo Zabaltegioko pelikulak: maila ona eta eskaintza anitza. Beiruteko



hainbat emakumeren elkarrizketa intimoak azaleratzen dituen **Caramel**-ek sari bat baino gehiago jaso du, kinielek aurreikusten zuten bezala, eta asko poztu gaitu **Soul Carriage** filmeko zuzendari Conrad Clarck-ek eskuratu duen zuzendari berrien Altadis sariak. Ingelesa izanda, bere lehen pelikularako apustu zaila egin du Clarckek: Txinan, txineraz eta txinatar erara errodatu du lankidearen gorpua familiari eraman behar dion herritarraren istorioa. Mendebaldeko zine eredutik erabat aldentzen da **Soul carriage** eta inperio erraldoiaren kontraste gogor eta beldurgarriak azaleratzen dizkigu. Geldoa eta desberdina izanik, filmak iraun bitartean ikusleen herenak aretoa utzi zuen eta oso txalo gutxi jaso zituen. Horregatik, harritu eta poztu egin gaitu zuzendari gaztearen ausardia eta lan duina aintzat hartu izana.

MIKEL GARCIA